

## Eskulanetan adituak direnak

Sanjoanetan, erakusketa ▶ 5



## Leitzako heriotza salatu dute lankideek

**LANTEGIAN** ▶ Sarrio Papel lantegiaren aurrean elkartu ziren Maria Jose Aranbururen lankideak

**HILETA** ▶ Ordubeteko lanuztea egin zuten; gaur 17:00etan izango da bere aldeko hileta elizkizuna ▶ 7



Lantegiaren aurrean elkartu ziren langileak heriotza salatzeko. J.ASTIBIA



IMANOL GARCIA

## Eskaltzugain berreskuratzen ari dira

**ZIZURKIL** ▶ Herriko baserritarrak berriro hasi dira urtetan erabili ez diren larreak aprobetxatzen; 40 abere inguru daude egun larretan ▶ 4

hitza *lagunen*  
**txokoa**

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **MAITE Estetikako Zentru Integralean BALLANCER presoterapiarako 3 saio** zozketatuko ditugu



JOSE MARI EZKIAGA ▶ ARKITEKTOA ETA SOZIOLOGIA ETA ZIENTZIA POLITIKOETAN LIZENTZIATUA

# «Natura, historia eta gastronomia izan daitezke hemengo ikurra»

Zerkausia, Santa Maria eta Uzturre proposatzen du; plan estrategikoan lehentasunak markatu behar direla dio

JOXEMI SAIZAR

Tolosaldeko Turismoari buruzko jardunaldietan, Jose Mari Ezkiaga arkitekto doktorea eta soziologia eta zientzia politikoetan lizentziatuak turismoa eta hirigintzaren arteko erlazioaz hitz egin zuen herenegun, hirigune historikoen berreskuraketarako turismoaren garapenerako ordenantzen garrantziaz eta. Madrilen jaioa, gurasoak tolosarrak ditu eta harreman estua du Tolosarekin. **Zein ideia jorratu dituzu?** Bi gai: alde batetik merkataritza eta hirigunea eta bestalde turismoa eta hiria. Hirigintza plangintza ez da alde batera gelditzen, asko lagundu dezake bietan. Hirigunea berrindartzea eta merkataritza berrindartzea bultzatu behar da, batera: ezinezkoa da hirigune bizi bat biztanlegorik gabe, eta merkataritza bizirik gabeko hirigunea ere ez. **Nolako dendak behar dira?**

## HIRIGUNEA

«Ezinezkoa da hirigune bizi bat biztanlegorik gabe, eta merkataritza bizirik gabeko hirigunea ere ez»

## OSTALARITZA

«Ostalaritza beti alde zaharretan egon da; ez da konponbidea industriaguneetara eramatea»

## TURISMOA

«Mendian eguna pasa ondoren, Tolosako hiriguneko jatetxe batean bukatzea saldu behar da»

Merkataritza minorista eta txikiak bi baldintza ditu: enplegu aldetik intentsioa, bestalde bizitasuna eta segurtasuna ematen dio kaleari. Arriskua izan daiteke ostalaritza monokultibo handiegia izatea. Biztanleekin elkarbizitza bermatu behar da, hotsengatik eta. Udalak banatu behar ditu ekipamendu komertzialak, gehiegi izan gabe. Banketxe gehiegi izateak ere desertifikazioa dakar.

### Zenbat denboratarako arauak egin behar dira?

Hirigintza arauak ez dira betirako egin behar, beharren arabera joan behar dira aldatzen. Hirigintza plan batean iraupen luzeko elementuak eta egoeraren arabera bereiztu behar dira. Lurralde ereduak kontsentsuatuak izan beharko luke, epe luzera. Hor politikak eragin handiagoa dauka. Beste gaia da arautegia. Arauek ondorioak bilatzen dituzte. Asmo oneko arau batzuk kontraesanak dira: hotsei buruzko arau zorrotzeak supermerkatuetako izozkailu makinak debekatzen dituztenak, sute arau zorrotzeak denda txikiak jartzea galarazten dutenak... Arautegi malgua izan behar du.

### Taberna Alde Zaharrea behar dira?

Tolosaren kasuan etxebizitzak mantendu behar dira Alde Zaharrea, hori da elementu garrantzitsua. Biztanlegoa bermatu behar da. Baina ostalaritza ere beti alde zaharretan egon da Euskal Herrian. Ordu-tegi gaia da. Insonorizazio on batek asko egiten du. Eta jendearen ohiturak ere bai. Ez da konponbidea tabernak industriaguneetara eramatea.

### Eta diskotekak non jarri behar dira?

Kanpoaldera eramaten ari dira, industriaguneetara. Ez zait gustatzen gazte antiurbanok sortzen dituelako eta gazteria belaunaldi urbanoena izan behar luke. Tolosaren kasuan erdigunean leku handi



JOXEMI SAIZAR

bat bilatzea zaila litzateke horretarako. Baina neurri txikiago diskotekak, 80. hamarkadakoak, agian bai, ez dute hainbeste soinurik ateratzen. Konpatiblerak izan behar du ostalaritza mota hori erdigunean. Haur eta gazteen kasuan beste espezializazio bat ari da ematen: zine eta aisialdi lekuak zentro komertzialetan ari dira biltzen. Autoaren kultura ari gara bultzatzen horrela.

### Zein epe behar du plan batek emaitzak ikusteko?

Arautegi malgua behar da, sakralizatu gabe, efektuak ikusita moldatzen joan. Erantzunak emateko. Merkataritza erraztasunak eman behar zaizkio. 5-10 urteko epean eragina ikus daiteke, baina merkataritzaren berrindartzea hanka bat du hirigintzan eta bestea denden modernizazioan. Hirugarren hanka superfizie handiekin duen harremana da. Nitxo propioak bilatu behar dira herriko komertzioan, superfizie handiekin osagarriak direnak. Espezializazioa da garrantzitsua, eta bezeroaren aurrean duen ezagutza. Kalitateak ere garrantzia du. Baina dendariei laguntza ematea biharko gosea da, gehiegi ezin da babestu. Bakarrak aurrera begira egiten dutenek iraungo dute.

### Nola erakar daitezke turismoa?

Turismoaren definizioa asko aldatu da azkenaldian. Aisialdiarekin lotuta dago. Denbora librearen kontsumoa da, zure ohiko bizilekutik mugitzea jateko, erosteko, buelta bat emateko. Erantzuna ere garrantzitsua da, aparkalekuak, garratibideak. Amerikarrek diote aparkalekurik ez badago neozorik ez dagoea. Autoaren kultura dute. Aparkaleku gehiago behar dira kanpoaldean, behintzat tarteka: astebu-

ruetan, Inauterietan, azoka berezietan...

### Landaturismoa bultzatzen ari da Tolosaldean. Hori al da bide egokiena?

Inguru naturala eta hiri inguruaren arteko harremana bultzatu behar da. Oso interesgarria da mendia eta kalea gertu egotea. Tolosaren kasuan historiaren elementua erantsi behar diogu. Hirugarren hanka gastronomia eransten badiogu: hemengo produktuak, kalitateko eskaintza, hemengo I+D sukaldariek egiten dutela dio batek. Gastronomian jakinduria, ezagutza saltzen da. Sormena da hori ere, abangoardiako artea bezala.

### Zein izan daitezke ikurra?

Kultura, kokapen geografiko eta natura uztartzen dituzten Zerkausia, Santa Maria eta Uzturre. Ez dago bultzatuta. Zumardi txikian aparkatzen jarratzen da? Ez da leku egokiena. Behar handia badago... San Frantzisko pasealekua ere oso espazio polita da. Horrelako oso leku gutxi daude Euskal Herrian. Mendian edo paseatzen eguna pasa ondoren, Tolosako erdiguneko jatetxeetan ondo bazkaltzen bukatzea saldu behar da. Helmuga erraztea, posibleagoa, Donostiara iristen diren turistak luzapen bat Tolosara zerbait hartzea izango litzateke. Ez dago kompetentziarik turismoan Oñatiarekin edo, osagarriak dira agian herri historiko baten zirkuitoa, gehiago justifikatzen du irteera. Sagardotegiaren turismoa ezagutzen dutenentzat bakarrik da, ez dago oso zabaldua, ahoz aho zabaltzen da. Gehiago zabaldu behar da.

### Plan Estrategikoa ikusi duzu. Zer iruditzen zaizu?

Plan estrategikoan dena dago, lehentasunak jarri behar dira, elementu nagusienak bereizitu.

MUSIKA ▶

## Torazinas eta Foraletes Bonberenean

Bere musika egitarau oporarekin jarraituz, larunbatean beste kontzertu bat antolatuta dute Bonberenean. Kasu honetan Torazinas —Reuseko taldea— eta Foraletes musika taldeak ariko dira 22:30etik aurrera San Esteban auzoko etxean.

MENDIA ▶

## Araxeseko VII. Itzulirako izen-ematea

Igandean egingo den Araxeseko VII. Itzulirako izen-ematea zabalik dago Amaro auzo elkartean, 637 18 77 48 (Jose Luis) edo 656 00 89 57 (Jose Mari) telefonoetan, auzoetxe@kzgunea.net helbide elektronikoan edo igandean bertan 06:00etatik 06:45era. Izen-ematea doan da. Mendi ibilaldi honek 9-11 orduko iraupena du. Irteera 07:00etan izango da Amaro auzotik eta Ollaun, Altzo, Otsabio, Añi, Zarate, Arribe-Atallu, Santa Barbara, Gorriti, Muisaio, Merku, Ulizar, Uli, Gaztelu eta Leaburu pasatu ondoren Amarozera itzuliko da. Informazio gehiago [www.amarozauzoa.com](http://www.amarozauzoa.com) webean.

HITZALDIA ▶

## 0-3 urte arteko oinarritzko ohiturez

0-3 urte bitarteko haurrentzat oinarritzko ohiturak harztearen garrantziaz jabetuta, Hirukideko Haur Eskolak Susana Egiluz psikologak eskaintako hitzaldia antolatuta du gaur 16:15ean Hirukide Gainberrin. *Oinarritzko ohiturak: loa, janaria eta esfinterrren kontrola* izango da hitzaldiaren gaia.

HEZKUNTZA ▶

## DBHko tituluak Laskorain Ikastolan

2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan DBHko 4. mailako ikasketak Laskorain Ikastolan amaitu zituzten ikasleek DBHko titulu bila pasatu behar dute Ikastolako idazkaritzatik nahi duten egunean.

**SERGIO GARCIA** ▶ EAE-KO GAZTERIA KONTSEILUKO ETXEBIZITZA ARLOKO TEKNIKARIA

## «Etxebizitza oinarrizko eskubidea da; ez da erraztu behar, bermatu baizik»

**L. Montes** ▶ Telefonoz egin du gu hitzordua Sergio Garciarekin. Lanpetuta zegoen atzo, prentsaurrekoa eskaini eta he-dabidekin hitz egin behar zue-lako. Baina gure galderei erantzuteko tartea ere hartu du. Gaurko hitzaldian mintzagai izango dituenak eta etxebizitzaren arazoa izan ditu hizpide. **Gazteentzako arazo larritzat jotzen duzue etxebizitzarena.** Lana eta etxebizitza jotzen dira gazteen arazo nagusizat. Etxebizitza oinarrizko eskubidea da; hori da gure abiapuntua. Baina, egoera ikusita, eskubide hori ez dela bermatzen argi geratzen da. **Gazte Kontseiluan egoeraren azterketa egin duzue.** Duela bi urte eta erdi hasi gi-

men martxan. Arazoa nabar-mena zela ikusita, egoera az-tertzeko eta irtenbideak pro-posatzeko azterketa abiatu ge-nuen, iturri ofizialeko datuak hartuta. OBJViren arabera, adibidez, 18-34 urte bitarteko gazte batek bere diru sarreren %63,8a erabili behar du etxe-bizitza eskuratzeko: 18-24 urte artekoek, batez beste %74; 25-29 artekoek, %66; eta 30-34 ar-tekoek, %57. Horren arabera, batez beste %30,5 dago ema-tzipaturik; eta datua larriagoa da 18-24 urte bitartekoetaz ari garenean, %4,9 soilik bizi bai-ta bere kabuz. **Beste oinarrizko eskubideekin ere konparatzen duzue etxebizitzarena.** Osasuna eta hezkuntza alorre-

tan etxebizitza gaian dagoen arazo bera egongo balitz, alar-ma gorria piztuta izango zen dagoeneko. 'Nola liteke?', esango luke jendeak. Baina etxebizitzaren gaian merka-tuaren legeak agintzen du. Ba-dirudi ez dela eskubidetzat jo-tzen. Eta oinarrizkoa da. Ez da etxebizitza erraztu behar, ber-matu baizik. **Konponbiderik ba al du ar-azoak?** Ikuspegi aldaketa da giltza. Hori lortuta, lau arlotan egin behar dugu lan guztiok. Bate-tik, lurraren kudeaketa egokia bermatu behar dugu, ekologi-koki zuzena, eta espekulazioa-rekin amaïtuko duena. Beste-tik, eskaintza publikoa sustatu behar dugu, herritarrengana-

ko zuzeneko eskaintza, bitarte-karirik gabekoa; era berean, alokairu sozialaren aldeko apustua beharrezkoa da. Etxe-bizitza hutsen kontua da hiru-garren puntua: ezin dugu onar-tu hainbeste etxebizitza huts egotea, prezioan eragin eta es-pekulazioa ahalbidetzen due-lako. Azkenik, arazoaren neu-rriarri egokitutako aurrekon-tuak onartzea ezinbestekoa da. Egun, Gizarte gai eta Ekonomia sailak %3a jasotzen du. Datu adierazgarria da; Osasunak, esaterako, %32 jasotzen du, eta Hezkuntzak %27. **Hori guztia aldarrikatzeko manifestaziora deitu duzue.** Etxebizitza Guztiontzat plata-formak deitu du; beste 100 bat eragilerekin batera, gu ere ber-tan gaude. **Etxebizitza eskubi-dea guztiontzat. Zuk duzu gil-tza lelopean, larunbatean egin-gu dugu manifestazioa, Bilbon.** Tolosaldeko gazteak ere parte hartzerantz animatu nahi ditut. ◀



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

### HITZALDIA ▶

**Gaia.** Gazteak eta etxebizitza. **Hizlaria.** Sergio Garcia, EAEko Gazteria Kontseiluko Etxebizitza arloko teknikaria. **Eguna.** Gaur. **Ordua.** 20:00. **Tokia.** Kultur Etxea. **Antolatzailea.** Gaztegunea eta Udal Gazteria saila.

### MUSIKA ▶



David Azurza Hodei Truk-eko zuzendaria saria jasotzen; atzean, abesbatzako haur eta gazteak. HITZA

# Bigarren saria irabazi du Hodei Truk-ek

Torreviejako (Alacant) Nazioarteko Habanera Lehiaketan lehiatu da abesbatza; urrezko diploma ere ekarri du etxera

**LEIRE MONTES**

Hodei Truk abesbatzako haurrek eta gaztetxoek «partehartze ezin hobea» izan dute Torreviejako (Alacant) jokatu

berri den Haur Abesbatzen Nazioarteko Habanera Lehiaketan. Bigarren saria lortu dute, eta urrezko diploma ere ekarri dute etxera. Beste zortzi kororekin lehia-

tu ziren Tolosaldekoak: Venezue-lako, Errusiako —bi abesbatza izan ziren—, Valentziako, Mur-tziako, Gasteizko, Irungo eta Gernikako ordezkariak, hain zuzen ere.

Asteburu oso bat iraun zuen lehiaketak. Larunbatean, goiz eta arratsaldean aritu ziren abesbatzak, eta igande goizean eskaini zuten azken saioa. Igandean hartu zuen parte Hodei Truk abesbatza, eta haien ondoren jardun zuen Gernikako Gaudeamus Korralak. «Atsegin handiz hartu zituen entzulegoak Tolosaldeko Inauterietako habanera, oso erritmi-koa eta alaia izan baitzen gure gaztetxoek egin zuten interpre-tazioa, koreografia txiki batez lagunduta. Txalo ugari jaso ge-nituen», azaldu dute, esperien-tziarekin pozik, Hodei Truk abesbatzako ordezkariak. Inauterietako habanerez gain —*El marinero cojo-Txin txin* eta *Txistuaren Habanera kantak*—, Tolosaldeko *Zugana Manuela-Ikusi nuanian*, Tomas Garbizu konpositorearena, *Suari Kanta* —Bitoriano Gandiagarren hitzak eta David Azurza zuzendariaren musika dituenak, ahots berdinetarako bertsioan lehenengo aldiz estreinatzen zena— eta *El abanico* derrigorezko obra interpretatu zituzten gaztetxoek, David Azurza zuzendaritzapean. Gernikako Gaudeamus korralak aukera askeko obren artean *Oihu hau* lana eskaini zuen, obra koral konplikatua eta erritmikoa, Xabier Lizardiren hitzak eta David Azurza Hodei Truk abesbatzako zuzendariaren musika dituenak. «Ikusleen txalo beroak jaso zituen obra-ren interpretazioak, ikusgarritasunagatik eta gernikarrek eskainitako kalitateagatik».

Julio Dominguez (Galizia), Tova Reshef (Israel) eta Calixto Alvarez (Cuba) adituek osatu zuten Torreviejako lehiaketako Nazioarteko epaimahaia. Tolosaldeko adierazitakoaren arabera, «lehenik eta behin abesbatza eta zuzendari guztien ahalegina eta dedikazioa» eskertu zituzten; bereziki, gainera, «David Azurza zuzendariaren talentua eta musikaltasuna, eta gure haur korak inspiratzeko ahal-mena. 'Haien etorkizunerako adibide garbi bat entzun ahal izan dugu hemen', zioten». Gernikako Gaudeamus Korralak irabazi zuen txapelketa, 94,4 punturekin. Bigarren saria Hodei Truk-ek jaso zuen, 88,7 punturekin. Eta Errusiako Bryansk-eko koruak hirugarrena, 83,3 punturekin. Hodei Truk abesbatzak, gainera, San Petesburgo eta Israelen egiten diren haur-koroen jaialdiatar joateko gonbita jaso du. «Oso eragingarria da hori lanean aurrera egiteko», esan dute. **Bitxikeriak ere bai** Bitxikeririk ere badute Hodei Truk-ekoek: abesbatza guztiak zeuden hotelek entsegurako gela handirik ez zutenek, Tolosaldeko entsegua hotel inguru-ruan egitea erabaki zuten. «Torreviejako egonaldi luzeak egi-ten dituen tolosar batek Inauterietako habanera entzun zi-tuen bere etxetik, eta berehala jaitzi zen kalera gu zorientzeko eta lehiaketaz galdetzeko», kontatu dute, pozik.

ZIZURKIL ▶ NEKAZARITZA

# Eskaltzugain berreskuratzen

Urtetan erabili ez diren larreak aprobeztatzen hasi dira herriko baserritarrak

IMANOL GARCIA

Eskaltzugain mendian 40 abere inguru daude egun larreetan. Zizurkilgo baserritar talde baten eta Udalaren ekimenaren bitartez hainbat urtetan erabili ez diren larreetan gaudu sartu dute.

Deialdi bat egin zen herriko baserritarren artean, nekazaritzaren egoera larria ikusirik. Bilera horretatik atera zen ideietako bat Eskaltzugaineko larreak berriz erabiltzea izan zen. Horrela, lursail horien jabeekin jarri zen harremanetan Udala eta hitzarmen bat sinatu zuten lur horien ustiaketa Udalaren esku utziz. Hamabost urtetarako da akordioa. Horrela, Eskaltzugain Abeltzain Elkarteak beren abereak eraman-godutuzte.

Pello Argaña, Andrezketa baserrikoa da elkarteak kideetako bat. «Larre horiek aprobeztatze beharra ikusi genuen eta horretarako bideratze lanak hasi zen egiten Udaleko nekazaritzako teknikaria. Larre horiek mekanikoki landu daitezke eta baserrien ingurukoak baino hobetoak dira», azaldu dio Pello Argaña HITZARI. «Onura asko ditu eskaltzugaineko larreak erabiltzea», azaltzen du Asier Mujikak, Berastegi baserrikoa eta elkarteak kide eta idazkaria. «Gero eta abelburu gehiago dago, baina lursailak berdinak dira. Ditu-gun lursailak mantentzeko, beste batzuk erabili beharra daukagu. Bestalde, mendia garbi mantentzen laguntzen du egitasmo honek, bai baserritarrentzat, bai mendizaleentzat».



Ezkerretik hasita, Pello Argaña, Bautista Argaña eta Asier Mujika. I. GARCIA

## Emaitzekin harrituta

Larreak garbitu, lurra landu eta belar hazia erein zuten. «Harrituta gaude belarra nola ateratu den», azaldu du Asier Mujikak. «Lurra aztertu zen, zituen gabeziak ezagutzeko. Horrela, ikusi zen karea falta zitzaioela eta horixe bota zitzaion. Gero, hazia erein ondoren, belarra oso ondo ateratu da eta jendea harrituta gelditu da. Horrek, baserritarrak animatu egin ditu». Izan ere, elkarte

zabalik dago bertan sartu den baserritarrentzat.

Berrogei urte pasatu dira herriarrek Eskaltzugaineko larreak erabiltzen ez dituztela. Aurretik, idi parearekin joaten ziren baserritarrak belarra biltzera. Andrezketa baserriko Bautista Argaña zen horietako bat, Pelloren aita. «Lehen dena segatu eta ekarri egiten zen. Ote-belarra zen nagusi, baina leku batzuetan nahiko belar goxoa izaten zen», azaltzen du. Orduan baserri ondoko lurra

oroetarako erabiltzen ziren. Baina gero makinariaren eta baserritar produktuen merkaturatzea etorri zen. Horrek, abereentzako janaria erosteko aukera eman zuen eta goiko larreak uzten joan ziren.

«Ordutik herrikoek ez dute erabili eta kanpoko batzuek erabili dituzte ardiak eta bertan izateko», azaltzen du Bautistak. Egun, ordea, egitasmo honekin herriko baserritarrak Eskaltzugain berreskuratzen hasi dira.

VILLABONA ▶

## Aizkardiren mendi irteera datorren datorren igandean

Baltzolatik Kanpanzar gainera egingo dute 27 kilometroko ibilbidea

ERREDAKZIOA

Igande honetarako antolatuta dute Aizkardi mendizale elkarteak Euskal Herriko hiriburuak uztartuz egitasmoaren baitan hurrengo irteera. Baltzolatik (Dima) Kanpanzar gainera egingo dute ibilaldia, Urkiolako parkea mendebaldetik ekialdera zeharkatuz. Indusiko auzotik hasiko dira, Baltzola eta Jentilzubi kobazuloetatik pasatu ondoren aurreko etapa bukatu zuten lekura iristeko: San Lorenzo baseliza. Hortik pista bat hartuko dute, Olatretako lepora iritsiz eta Errialtabasora (1.018 metro) igoz. Iturriotz lepora jaitsiko dira eta Saibiko gainara (946 metro) joko dute. Hortik Urkiolako gainara joango dira eta bidea zeharkatu ondoren pistatik jarraituko dute Zabalandi leporaino, Anboto ezkerretara utziz. Tellamendi (835 metro) aldera joko dute eta Besaideira (564 metro) jaitsi. Hortik Campanzar gainara joango dira, Udalaitz (1.117 metro) inguratuz eta ibilbidea amaituz.

Guztira 7 ordu izango dira 27 kilometro egiteko. Izena emateko 943 69 44 58 telefonon (Joxan) edo Aizkardiren egoitzara joanez. Gaur da horretarako azken eguna.

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

## Hitzaldia eta mendi martxa antolatu ditu Ziotza elkarteak bere bigarren urterena betetzen dela-eta

Maiatza Saltsan-en baitan Teodoro Hernandorena III. Ipuin Lehiaketako liburua aurkeztu dute

I. GARCIA

Ziotzaren bigarren urterena dela-eta ekitaldiak antolatu dituzte Maiatza Saltsan kultur egitarauaren baitan. Bihar mendiarri buruzko hitzaldia izango da Iriarte kultur etxean, 20:00etan hasita. *Goi mendizaletasuna: altueraren eragina*

eta *entrenamendua* hitzaldia emango du Alberto Zerainek.

Bestalde, etzirako Beriain mendilerroa ibilaldia antolatu du Ziotza elkarteak, bertan dagoen Euskal Herriko erdigune geografikora. 09:00etan aterako dira Joxe Arregi plazatik. Umeentzako garraioa egongo da Unanue herritik erdigune-

raino. Puntu horretan bazkaria egingo dute mendizaleek. Antolatzaileek adierazi dutenez, eguraldi txarra egingo balu, mendi martxa beste data bat arte bertan behera geldituko litzateke.

Maiatza Saltsan kultur egitarauaren baitan ere Teodoro Hernandorena III. Ipuin Lehia-

ketako liburua aurkezpena egin zuten. Saria jasotako ipuin biltzen dira argitarapen horretan. Aurkezpenaren ondoren, Maite Frankok 6 eta 10 urte bitarteko idazleen ipuinak kontatu zituen. Hogeita hamar bat haur bildu ziren ipuin kontaketa entzuteran. Liburuak herriko ikastetxetara banatuko dira, baita



Ipuin liburuaren azala.

inguruko herrietako ikastetxetara ere. Tolosaldeko liburutegietara ere aleak banatuko dira.

BELAUNTZA ▶ KULTURA



Irakaslearen oharrak jarraituz eskulanak egiten ikasi dute Belauntzako 8 emakumek. I.TERRADILLOS

# Eskulanetan adituak

Zazpi hilabetez jardun dute Belauntzako zortzi emakume eskulanetan; sanjoanetan ikusi ahalko dira haien lanak

IÑIGO TERRADILLOS  
NOELIA LATABURU

**B**elauntzako Udalak antolatzen dituen ikastaroen barruan eskulan tailer-rarena dago. Urtero egiten dute, eta izena ematen dutenek ederki igarotzeaz gain, asko ikasten dutenez datorren urtean errepikatze gogoz amaitzen dute ikastaroa.

Horrela, pasatu den urteko urrian hasi zirenetik eta apirila amaieran bukatu zuten artean Belauntzako zortzi emakume egon dira astearteko taller honetan. Hauei irakasten Mari Karmen Aranburu zaldibiarra izan da. Duela hamabi urte hasi zen eskulanen irakasle moduan lanean, hau da, gehien gustatzen zaion jardunean. Belauntzako kasuan, zorte handia dutela dio Lazkaon bizi den zaldibiarrek, izan ere, «beste herri askotan ez bezala, Belauntzan gehiago irauten du ikastaroak, eta horrek gauzak astiroago eta landuago egitea eta irakastea dakar».

Lagunarteko giroa izan dute astearte arratsaldero herriko Kultur Etxean bildu diren 8 emakumek. Zazpi hilabeteetan zehar gauza asko egiten ikasi dute: eskuz egindako karkorraz lanak, kortinak, altzariak zaharberri eta pintatu, gurutze-puntua... Aranbururen esanetan, «oso pozgarria da ikasleek aurrera nola egiten



Eskulanak egiteaz gain, tertuliarako tartea ere izan ohi da. I.TERRADILLOS

duten ikustea», halaber «garrantzitsuagoa da niretzat eskulan batekin denbora gehiago landu eta emaitza hobea lortu, bi gauza erdipurdiko egitea baino», gaineratu du irakasleak.

Pena handiarekin esan diote agur aurtengo tailerrari be-launtzarrek, baina urtero legez, askari eder bat prestatu zuten datorren urterarte agurtzeko. Handitzen joan den harremana dute, ikasleek euren artean, zein irakaslearekin,

izan ere, seigarren urtea da zaldibiarrekin bat egiten dute-lan.

### Sanjoanetan ikusgai

Hainbat eta hainbat eskulan egin dituzte eta horiek erakusgai jarriko dituzte beste urteetan egin izan duten bezala. Datorren San Joan jaietan izango dira ikusgai Belauntzako Kultur Etxean zortzi emakume hauek eskulan ikastaroan egindakoak.

ALEGIA ▶

## Koordinazio batzordea egingo dute etzi

Etzi 10:00etan koordinazio batzordea egingo dute Ale-giako udaletxeko batzar aretoan. Bertan urteko egitasmoak eta hauek aurrekontuetan edukiko duten lotura eztabaidatuko da. Halaber, batzordeetan landu dituzten hainbat ideia bai eta proiektu jarriko dituzte mahai gainean.

ALEGIA ▶

## Apirileko informazio orria kaleratu dute

Apirilari dagokion orria, udal batzorde eta ekimentako informazioa, zabaldu berri da herriko etxe guztietara. Bertan, Aberri Egunean hartutako konpromezu eta asmoen berri ematen da. Kirol eta Kultur Etxearen funtzionamendu berriari buruz egiten ari den balantzea azaltzen da, etxebizitzari buruzko azterketa, hirugarren adinekoen beharrak, ur instalazioan egin beharreko inbertsioak eta San Joan kaleko lanak, besteak beste.

ALEGIA ▶

## Jeshmar musika elkartearen kontzertua gaur

Gaur 19:00etatik aurrera eta kultur etxean, Jeshmar musika Elkartearen «Arragoa-Zapore latino» kontzertua izango da. Hirukote erritmikoa dauka oinarrian talde honek eta bere partaideak honako hauek dira: Arantxa Odriozola (ahotsa), Julen Izarra (saxoa), Ixak Oiarzabal (perkusioa), Jokin Lakunza (pianoa) eta Mikel Mate (baxua).

IBARRA ▶

## Argindegiko etxebizitzaren zozketa gaur

Gaur Argindegi 18-20an egingo diren etxebizitzaren zozketa burutuko da, zenbaki hautatuak zein izango diren jakitera emango da, beraz. Ibarako kiroldegian izango da 18:00etan. Jendeari irekitako zozketa hau notario aurrean egingo da.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Baliarrain.** Medikua: 88 90 03
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Orendain.** Medikua: 65 55 95
- Orexa.** Medikua: 68 22 28
- Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 00 68 00
  - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
  - ▶ Amaro zko dispen.: 67 26 37
  - ▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
  - ▶ Tolargi: 65 00 16
  - ▶ Iurrarendi egoitza: 67 03 25
  - ▶ DYA: 67 25 36
  - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
  - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
  - ▶ Tolosa gasa: 67 53 20
- Villabona.** Anbulat: 00 69 70
- Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
- ▶ Leitza zaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxis: 67 04 20
- ▶ Taxis (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaurdi: 65 50 04
- ▶ Aurrerri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888
- ▶ Txolarre Irratia: 69 80 38
- ▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur.** Bronte, C. Korreo kalea 20 (Tolosa). 943 67 60 13
- Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea.** 661 67 88 18.
- tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
- tolosa@tolosaldeko hitza.info
- Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.
- villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info
- Anoeta.** 687 41 00 22
- anoeta@tolosaldeko hitza.info
- Ibarraldea.** 687 41 00 32.
- ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
- Alegialdea.** 687 41 00 34.
- alegialdea@tolosaldeko hitza.info
- Leitzaldea.** 687 41 01 18.
- leitzaldea@tolosaldeko hitza.info

IBARRA ▶ KULTURA

# Usadioak kirol bilakatu zirenekoak

Datorren maiatzaren 17a bitarte izango da zabalik 'Euskal herri kirolak' argazki erakusketa Kultur Etxean

N. LATABURU

Kutxa Gizarte Ekintzak, Ibarra-ko Udalarekin lankidetzan, euskal herri kirolen inguruko argazki-erakusketa jarri du Ibarra-ko Benito Izagirre kultur etxean.

Euskal gizartearen jardunean eta bilakaeran sustraitzen den eta gaur egunera arte ailegatu den hainbat jarduera nabarmendu nahi izan dira irudi grafiko ezberdinen bitartez. Horrela, hainbat eta hainbat argazki bildu dituzte garaiko jardunak ezagutarazteko. Besteak beste, sokatira, pilota, trontza, indarra neurtzeko probak, idi-proba, gizon-proba edota aizkolarien lana ikusi ahal izango da erakusketa honetan datorren maiatzaren 17a bitarte.

Garai batean, egunerokotasunean gauzatzen ziren hainbat lan eta ekintza, gaur egun kirol bezala ezagutzen dira; ekintzen bilakaera historikoa berri izateko aukera paregabea gertatzen da, beraz. Adin guztietako gipuzkoarrek betidanik egin dituzte kirolak beren aldaera guztietan eta, <horregatik, merezi du gure ai-

sialdiaren zati garrantzitsu bat argazki erakusketa hau bisitatzeko erabiltzea», antolatzaileen arabera.

*Euskal herri kirolak* izeneko argazki erakusketa hau ikusiaz gozatu nahi dutenek asteleheneetik ostiralera izango dute horretarako aukera, goizez, 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldez, 15:30etik 21:00etara Benito Izagirre kultur etxean.



Zezen-plazetan 60. hamarkadan egiten zen ahari jokoa. I. TERRADILLOS



1949. urtea. Abaltzisketako Polipaso aizkolaria Donostiako Txofre plazan. I. TERRADILLOS



1970. Lopetegui, Agerre II.aren erakustaldia i. t.

BERASTEGI ▶ KULTURA

## Iztuetak Argentinako emigrazioari buruzko bere lana aurkeztu du

'Euskal aztarna Argentinan, memoriaren bitartez hezi eta ikasi' du izenburu lanak



GAZTELU UDALA

Iragarkia

Gazteluko Udalak, Gazteluko kontzejuan kokatutako ostaua (taberna jatetxea) ustiatzeko prest egon daitezkeen pertsonen zerrenda bat osatu nahi du, gogoeta egin eta ustiapen modalitateak zehazteko. Interesatuak maiatzaren hogeirako Udalean izena eman beharko dute.

Gaztelun, 2005eko apirilak 21  
ALKATEA

I. TERRADILLOS

Argentinako euskal aztarnen inguruan jardun zuen atzo eguerdian Josu Iztuetak, *Euskal aztarna Argentinan, memoriaren bitartez hezi eta ikasi* lana aurkeztu baitzuen Berastegiko Muñagorri eskolako ikasleen aurrean. Horma-irudien bidez Argentinara emigratu zuten euskaldunen historia kontatzen da erakusketan. «Berastegin emigrazio handia izan zen, horregatik aukeratu dugu erakusketa egite-



Josu Iztueta erakusketa umeei azaltzen. I. TERRADILLOS



Paneletako informazioa irakurri zuten. N. LATABURU

ko», azaldu du Josu Iztuetak. Ikasleek asko ikasi zuten Iztuetaren azalpenekin eta, ondoren, horma-irudietako informazioa irakurri.

Arratsaldean, berriz, hel-

duen txanda izan zen eta Ander Izagirre arduratu zen herri-tarrei erakusketa azaltzeaz eta informazioa emateaz. Emigrazioaren arrazoiak, haraino joaneko egindako bidaien gorabe-

herak eta bizitza berriari egokitze zailtasunak izan ziren, besteak beste, hizpide atzoko hitzaldian. Tolosan ere, beste hainbat herritan bezala, eskainiko dute erakusketa.



## Mari Jose Aranburu lankide zenaren heriotza salatuz

**LEITZA** ▶ Atzo eguerdian, Sarrio Papel lantegian furgoneta batek harrapatuta, lan istripuz hil zen Mari Jose Aranbururen lankideek 12:00etatik 13:00tara, ordubeteko lanuztea egin zuten eta bitartean elkarretaratztea burutu, lantokian bertako atarian. Horrela bada, goizeko erreleboa eta lanordu zatikatua duten langile guztiak eta zenbait sekziotako arduradunak ere bertan

zirela, beren lankidearen heriotza salatuz batera, horrelakorik gehiago gerta ez dadin beharrezko diren segurtasun eta prebentzio neurriak hartzea eskatu zuten. Bestalde aitatu beharrezkoa da (atzoko ordua zuzenduz), gaur, 17:00etan izan den delari Mari Jose Aranburu langilearen hileta elizkizuna. Lore sorta ageri zen, istripua gertatu zen tokian. J. ASTIBIA

NATUR BIDEEN EGUNA ▶

# Natur Bideen Eguna antolatu du Plazaola Patzuergoak

Igandean ibilaldiak, merkatuak, kultur ekitaldiak, izanen dira trenbide zaharrean

JAIONE ASTIBIA

Igandean egingen da Natur Bideen Eguna Plazaolako bide berdean. Egunduz guztitan zeharrek askotariko ekitaldiak prestatu ditu, Leitza eta Areso ere bazkide diren Plazaola Patzuergoak.

Plazaolako Lekunberriko geltokia izanen da ekitaldi gehientsuenen gune, partzuergoaren egoitza ere han baitago. Baina, goizerako antolatu dituzten ibilbideekin, Plazaolako bide berde osoan zehar ibiltzeko lau proposamen desberdin prestatu dituzte: goiztiarrenak, Leitzatik abiatuko dira, edo plazatik aterata, Iturriarreen barrera, trenbidera iritsiz, edo lehengo geltoki zaharretik bertatik ere bai. Ibilbide honetan tunel asko igaro behar direnez, eskuargiak eramatea aholkatu dute antolatzaileek, Uitziko Tunel Handia (2.700 m.), argizta-

tuta egonen dela ere iragarri. Ibilbide zirkularra, «bizikletaz ibiltzen ohituta» daudenentzat egokia omen den bezala, motzena, haur txikiak dituzten familientzat prestatu omen dute. Edonola ere, irrifarraren mezulari, hortxe ibiliko omen dira, ibilbide guztian zehar, pailazo koadrila ere, haurren eta ez hain haurren entreteniagarri.

Ibilaldian atseden hartu nahi izanez gero, ordea ez da asperzeko betarik izanen. Izan ere goiz guztian zehar geltokiaren inguruan, Plazaolako Artisanen Elkarteko artisauek beren lanak erakusten hantxe edukiko dituzte: garagardoa, taloak, gazta, ezti, zura, harria, larrua... eta zer ikusia izanen da; bisita gidatuak ere egingen dituzte, egoitza bera erakusteko, geltokia, eta han bertan jarri duten bagoi berri bat ere. Hain zuzen ere, Jolase Bagoi izena jarri dioten horren



Bide lasaia ziurtatu daude. J. A.

irekidura ekitaldia egingen dute eguerdi aldera. Hau 60. hamarkadako den bagoi bat omen da, «haur eta helduentzat aisialdirako» leku bihurtu dutena.

Ospakizunei bukaera emate aldera, Frida People musika taldeak kontzertua emanen du, funk doinuak eskainiz.

## NATUR BIDEEN EGUNA ▶ EGITARAUA

MAIATZAREN 15a, IGANDEA

**Ibilbideak, Natur bidean barna.** Oinez edo bizikletaz egiteko.

▶ **9:00.** Leitza-Lekunberri (14 edo 16 Km.).

▶ **10:00.** Lekunberri-Uitz-Lekunberri (10 Km.).

▶ **10:00.** Lekunberri-Uitziko tunela-Etxarri-Lekunberri (15 Km.). Zirkularra.

▶ **11:00.** Lekunberri-Mugiro-Lekunberri (4 Km.).

**10:00-14:00.** Plazaolako artisauen merkatua.

**10:30-12:30.** Gidatutako ikustaldiak.

**13:00.** Jolase bagoiaren irekidura ekitaldia.

**13:30.** Frida People taldearen kontzertua.

PILOTA ▶

## Olazabalek Elgetakoan beste saio bat du bihar

Bengoetxeak, berriz, justu-justuan, baina 22-20 galdu du eta kanpoan gelditu da

J. ASTIBIA

Mikel Olazabalek bihar du Elgetako txapelketan beste kanporaketa saio bat. Gaueko 21:00etan hasiko den jaialdian, bigarren partiduan ari beharra da, Aresoko pilotaria.

«Oraindik ez daki zeinen aurka» aritzea egokituko zaion, ordea. Hara joaten deenean jakinen omen du.

Jada txapelketatik kanpo gelditu dena, Ibai Bengoetxea leitzarra da. Herenegungo partiduan, Jauregi sorluzearra izan zuen aurkari, eta leitzarra 11-4 irabazten joanagatik, hark sakea hartu zuenean, partiduari buelta eman zion eta 22-20 irabazi. Eskuak «txikituta» izan arren, Elgetan aukera guztiak baliatzea erabaki zuen Bengoetxeak, baina azkenean, kanpoan gelditu da.

LEITZA ▶

## Mikel Saralegi finalerdietara pasatzeko bidean etzi

J. ASTIBIA

Etzi, larunbata, Urduñan egingen dute Urrezko Harrijasotzailearen sariketako beste kanporaketa bat eta bertan izanen da Mieltxo Saralegi ere, Zelailuzearekin.

Bikote hau lehen kanporaketan bigarren gelditu bazen ere, orain finalerdietarako sailkatzeko beste aukera bat izanen du, Landarbidetara Zelairen aurkako eginahalean: bina minutuko saioak, 200 kiloko errektangularrak eta 100 kiloko zilindro harriekin; eta 3 minutuz, txanda librean, 100 kiloko bolarekin. Jasaldi gehien egiten dituen bikoteak egingen du aurrera. Jaialdi berean erabakiko da, baita ere, Goenatxo-Barinaga eta Tigre-Atxaren artean, beste bikotea.



## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Tolosa (Bedaio).** Harri Jaia Artubi elkarteak: 11:00etan meza nagusia; ondoren, hamaiketako Agirre eta Mañukorta bertsolariekin eta trikitilariekin. 14:00etan, bazkaria.

**Tolosa.** Igarondo udal igerilekuan aste honetarik aurrera solarium-a irekita egongo da.

**Tolosa.** Eskualdeko ataudarrek afaria egingo dute hilaren 27an Fronton jatebtean, 20:30ean. Izena emateko: 943 65 29 41.

**Villabona.** Jai Batzordearen bilera irekia, Santio jaikiak prestatzeko. Udaletxean, 20:00etan.

**Villabona.** Ezker abertzaleak 20 urte erakusketa, Gaztetxean, 17:00etatik 21:00etara.

### HITZALDIAK

**Berastegi.** Hiri errentamenduei buruzko hitzaldia, Ategi baserrian, 18:00etan. Alejandra Murua izango da hizlaria.

**Tolosa.** Gazteria Kontseiluko Sergio Garcia teknikariaren eskutik, *Gazteak eta etxebizitza* hitzaldia, Kultur Etxean, 20:00etan.

**Tolosa.** Oinarrizko ohiturak: loa, janaria eta esfinterren kontrola hitzaldia emango du Susan Egiluz psikologoak 16:15ean, Gainberrin.

# Bide berriak zabaltzen

**TOLOSA ▶** Herriko gune askotan lanak ari dira egiten: bidegorria dela, auzoen berregituraketa dela... Batxiller Zaldibia kaleko bide berriari erreparatu diogu



Batxiller Zaldibia kaleko bide berria orain hilabete zabaldu zuten. J. S.

### IRATXE ETXEBESTE

**T**olosako kaleak hankaz gora daude azkenaldian. Bidegorria egiteko lanak direla, auzoen berregituraketa dela; bateko eraikin enblematikoen birmoldaketa, besteko kirolgune berrirako eraikina egitea... Hautsak harrotzen dituzten lanak dira denak. Irauten duten artean oinezkoak eta auto gidariak aztoratzen dituzten, mesede ederra egiten diote herriari. Eta herritarrei, horietako gehienei bai, bederen. Hala, hasiera batean sortzen duten harridura ezerezen geratzen da segituan; moldaketaren aurretik gune haiek zuten itxura ahaztu, eta berehala ohitzen dira begiak ingurune berrira. Ala ez?

Herriaren erdian egon ez, eta bertara sarri askotan joatea beharrezko ez den kasuetan, oharkabean pasatzen zaizkio herritarri hango eta hementengo auzoetan edo kaleetan aspaldidanik egiten ari diren lanak. Amaituta dauden ere ez dira jabetzen maiz. Aisialdiaz gozatzeko aukera dutenak dira, ziurrenik, herriko itxuraldaketez gehien ohartzen direnak. Egutero-egutero paseatzera iriten duten horiek. Badirudi hirigintza alorrean adituena direla, gainera, haiek izaten direlako, Udaleko ordezkariarekin batean, proiektuen jarraipen zehatzena egiten dutenak. Lagunartean komentatzen dituzte gero:

- Ikusi al duzu Araba etorbidearen atzealdean horma berria ari direla egiten?

- Aspaldian hasi ziren, motel; bukatzeko bidean ere badira honezkerok!

Batxiller Zaldibia kaleko adibide ona izan daiteke. Kale hori San Esteban auzoarekin lotu dute pasabide batekin, eta, era berean, ederki atondu dute Hirukide-Jesuitin ikastetxe inguruak. Tolosa askok jakin jakingo zuten han obrak ari zirela egiten, baina, zenbat jabetu dira orain dela hilabete bide zabalduta dagoela?

Jakizue, hiru urteko lanen ostean, bukatu dituztela obrak jada. Hogeita hamar urte ba omen dira orduko udal agintariak ekimen horri buruz hizketan hasi zirenetik, eta orain, San Joan, San Ignacio, Batxiller Zaldibia eta Geltoki kaleak batuta daude; oinezkoentzat soilik dira azken biak, eta trenbide azpiko pasabidea zeharkatuz lotzen dira San Esteban auzoarekin. Osasun etxeko aparkaleku ondokigartzen den pasabide hori bi norantzatan ireki dute ibilgailuentzat, hasiera batean norantza bakarrekoa izango zela esan zuten arren. Abiadura murrizteko *maldaxoak* dituzten zebra-bideak jarri dituzte, eta gehienezko abiadura orduko 30 kilometroira mugatu dute.

Etxebizitza ugari egin dituzte inguru horretan, eta berdegune bat ere sortu dute. Pergola antzeko batek estaltzen duela, Vega de Sellako Kontearen botatako etxean zegoen iturria jarri dute bertan. 1849an eraikitako etxe historiko hura Jesusen Alaben Komunitateari zegokion, eta ikastetxe horretako jolaslekuan ei zegoen.

## AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

Ander Uranga (Tolosa).  
Bihar 9 urte.  
Etxekoan partetik.



### URTE ASKOAN

Jon Zubeldia Altuna (Amezketza).  
Gaur 6 urte. Zorionak eta muu handi bat aita, ama eta batez ere Garaziren partetik.



### ZORIONAK

Joxe eta Pepita (Hernalde).  
Gaur urrezko etzeiak. FamiliA guztiaren partetik egun ona pasa. Larunbatean ospatuko dugu zuen kontura; preparatu kartera!



### URTE ASKOAN

Maria Etxeberria (Tolosa).  
Zorionak amona, eta jarraitu beti bezain guapa.

**HITZA,**  
zorian agurren  
tarteak

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 beheko  
TOLOSA  
Udaletxeko bulego  
LEITZA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!

2005eko maiatzaren 19, 20, 21 eta 22a  
15:00etatik aurrera zabalik

W. Garayalde

IBARRAKO PARADISEA